

**BIZITEGI-ERAIKINEKIN LOTUTAKO EGITURAZKO ELEMENTUAK  
KONPONTZEKO OBREN BETEARAZPENERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA -  
2017**

Hiri Plangintzarako Sailak titularitate pribatuko eraikinak segurtasunaren, osasungarritasunaren eta apainduraren arloan hirigintzari buruzko legerian aurreikusitako baldintzen arabera behar bezala artatuta daudela zaindu behar du, besteak beste.

Sarritan, eraikitako parkearen antzinatasunaren ondorio zuzen moduan, eraikinei eusteko egitura eragina duten kalteak antzematen dira. Kalte horiek konpontzea oso garestia izan ohi da betearazpenaren zailtasunagatik eta patologia-motagatik, batzuetan orokorra delako eraikuntza osoan.

Kalte horien jatorria anitza da, ordea: eraikineko zimenduko akatsak; jatorritik betearazpena akastuna izan dela egiaztatzen duten kalteak, materialak kalitate urrikoak izan zirelako edo proiektuan akatsak egin zirelako; eraikina behar bezala ez artatzean sortutako narriadurak (hezetasunak...).

Horrelako patologiak larriagotu egiten dira oso zaila delako goiz antzematea, eraikinen egitura ezkutuan egoten delako eta kalteak agerian ez daudelako akaberetan edo itxituretan beste patologia batzuk sorrarazten direnean.

Eraikinaren elementu bateratuen egiturazko multzoaren osagaiak direnez, oro har jabe-erkidegoa bera da konpondu behar dituen. Edonola ere, batzuetan, forjatuko elementuak ordezkatu behar direnean (txarto dauden habexkak, esaterako), kaltetutako etxebizitzako edo lokaleko jabeak konpondu beharko ditu.

Bizitegi-eraikinetan bakarrik betearazitako jarduketetarako izango diren laguntza hauek ezartzean, partikularrei obrak finantzatzen laguntzea da xedea, oro har ezohiko gastu handia delako, haien etxebizitzetan eragina duelako eta, lesioen ezaugarriak eta segurtasunean duten eragina kontuan hartuta, ezin direlako atzeratu edo geroratu. Oro har, premiazkoak eta garestiak dira.

Laguntza hauetan, honako jarduketa hauek hartuko dira kontuan: teilatuko edo forjatuetako habexkak ordezkatzeta, askotan eremu hezeen azpian narriatuta daude-eta; edozein arrazoiengatik beharrezkoa denean (hezetasunak, gainkargak, betearazpeneko akatsak, armaduren korrosioa...) eraikinetako habeak zein zutabeak konpontzea; eta lursailen garbiketagatik, maila freatikoko aldaketengatik edo beste arrazoi batzuegatik zimenduak sendotzea.

Era berean, laguntza hauetan, kaltetutako egiturazko elementuen konponketa ere hartuko da kontuan, harik eta elementu euslea, forjatua, portikoa... erabat konponduta egon arte.

Aitzitik, ez da diru-laguntzaren helburua izango artapena eta apaindura behar den modukoak izateko ordezkatu beharreko akaberak ordezkatzeta.

Horretarako, ekitaldi honetan, Udalbatzak 2017. urterako aurrekontuetan zuzkitu du programa honetarako 29.750 euroko kreditua.

Bestetik, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeko 52. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, batez ere bizitegi-erabilerakoak diren eraikinak unean-unean eskatutako kalitate-eskakizunetara egokitzen direla egiaztatzeko, teknikari eskudunek behar beste ikuskaritza tekniko egin beharko dituzte, eta arauz zehaztutako antzintasuna duten bizitegi-higiezinetakoko jabe-erkidegoek euren eraikineko EAT egin beharko dute.

Lurzoruari eta Hiri Zaharberrikuntzari buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko bigarren xedapen iragankorren xedatutakoaren arabera, Eraikina Ebaluatzeko Txostena egin beharko da eraikinetako titularrek laguntza publikoak lortu nahi dituztenean, kasuan kasuko laguntza eskatu baino lehen artapenerako, irisgarritasun unibertsalerako edo eraginkortasun energetikorako obrak egiteko.

Horren ondorioz, Eraikina Ebaluatzeko Txostena aurkeztu beharko da (edo Eraikinen Azterketa Teknikoa), eraikinaren antzintasuna edonolakoa dela ere. Hartara, eraikin horietako egiturazko elementuen baldintzak hobetzeko udal-lankidetzaren ordaina izango da onuradunak berak artapenerako zein zaharberrikuntzarako lehenengo neurri hori betetzea.

Deitutako dirulaguntzen kudeaketan, honako printzipio hauek bete beharko dira: publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta ez-bereizkeria, baita administrazioak zehaztutako helburuen betearazpen eraginkorra eta baliabide publikoen esleipen zein erabilera egokiak ere.

## **1. ARTIKULUA. HELBURUA**

1.- Deialdi honen helburua da bizitegi-eraikinekin lotutako egiturazko elementuak konpontzeko obren betearazpenaren finantziatorako diru-laguntzak esleitzea, forjatua, karga-horma, portikoak edo zimenduak diren kontuan hartu gabe.

2.- Laguntza hauetan, kaltetutako egiturazko elementuen konponketa hartuko da kontuan, harik eta elementu euslea, forjatua, portikoa... erabat konponduta egon arte.

3.- Ez dira deialdi honetan kontuan hartuko egiturazko konponketa bera egin baino lehen prebentziorako ezarritako neurri osagarriak (behin-behineko eskoramendua, esaterako), ezta artapena eta apaindura behar den modukoak izateko ordezkatu beharreko akaberen ordezkapena ere.

## **2. ARTIKULUA. EREMUA**

Deialdi hau ezartzeko eremu geografikoa Bilboko udal-mugarte osoa izango da, Surbisak kudeatzen duen eremua izan ezik (Alde Zaharra, Bilbo Zaharra, Trenbideko Langileen auzoa, Gurutze auzoa, Zorrotzaurre, Olabeaga, Iralako eremu hondatua eta Zazpilanda), bertan laguntza-programa bereziak daude-eta.

## **3. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA**

Deialdi honetako diru-laguntzak honako hauexen arabera arautuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; lege hori garatzeko asmoz uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako araudia; eta Bilboko Udalak eta bertako zuzenbide publikoko erakunde eta organismoek deitutako diru-laguntzak esleitzeko asmoz 2016ko ekainaren 30ean udalbatzak hartutako erabakipeko

ordenantza orokorraren bidez onartutako eta 2016ko uztailaren 20ko 138. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarri arautzaileak.

#### **4. ARTIKULUA. ONURADUNAK**

1.- Jarduketa egiten duten bizitegi-eraikinetako pertsona fisiko edo juridiko jabeek eskatu ahal izango dute diru-laguntza, baita jabe-erkidegoek ere, elementuak bateratuak direnean. Izan ere, euren ekimenez edo udalak berak eskatuta jardun ahal izango dute.

2.- Era berean, laguntzok ere jaso ahal izango dituzte, helburu bererako eta ezinbestean gertatutako arrazoiengatik (euriteak...) udalak obrak ordezkagarritasunez betearazteko premiazko prozedurapean esku hartzeko erabakia hartzen duenean, betiere, jarduketa horiek egin baino lehen jabeek bete ez duten betearazpenerako udal-agindurik egon ez bada.

3.- Eskatzaileak ezingo dira onuradunak izan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitako debekuren baten eraginpean badaude.

4.- Eraikinaren antzintasuna edonolako dela ere, laguntza eskatu baino lehen, Eraikina Ebaluatzeko Txostena edo EATko Txostena (Eraikinen Azterketa Teknikoa) aurkeztu beharko da Bilboko Udaleko Hiri Plangintzarako Sailean.

#### **5. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

Laguntzetako onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 14. artikuluan zehaztutako betebeharrak bete beharko dituzte.

Batez ere, esleipena ebazteko proposamena eman baino lehen egiaztatu beharko dute zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren betearazpenean egunean daudela.

Diru-laguntza ez da ordainduko, izapideak egitean zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren betearazpenean egunean egon ezean.

#### **6. ARTIKULUA. AURREKONTU-KREDITUAK**

1.- Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalak 2017ko ekitaldirako onartutako aurrekontuko 32000 15220 78099 (PEP 2017/00110) kontu-sailaren kontura finantzatuko dira.

2.- Deialdi honetarako zenbatekoa HOGEITA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR (29.750) EUROKOA izango da.

3.- Zuzkidura hori agortutakoan, ez da laguntza gehiago emango, harik eta aurrekontu-zuzkidura berria baimendu arte, eta hori udalaren webgunean argitaratuko da.

4.- Aurrekontu-zuzkidura aurkeztutako eskabideen arabera handitu ahal izango da, deialdi berria egin gabe.

#### **7. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOA**

Laguntza ekonomikoa obraren benetako kostuaren ehuneko hogeiko (%20ko) diru-laguntza izango da, eta ez da itzuli beharko. Bertan, hain zuzen ere, obrarako

emandako laguntza teknikoagatiko ordainsariak kontuan hartuko dira, eta ez dira BEZa, tasak edo udal-zergak kontuan hartuko. Honako hauexek izango dira mugak:

- Diruz lagundu daitekeen jarduketaren gutxieneko aurrekontua hiru mila (3.000) eurokoa izango da.
- Laguntzaren gehienezko zenbatekoa bost mila (5.000) eurokoa izango da.

## **8. ARTIKULUA. BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA**

1.- Laguntza hauek bateragarriak izango dira nazio-mailako, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismoetako edozein erakunde publikok edo pribatuk edo edozein administraziok helburu bererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

2.- Nolanahi ere, modu isolatuan edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

## **9. ARTIKULUA. ESKABIDEAK**

1.- Laguntzak lortu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoek obra amaitutakoan aurkeztu beharko dute eskabidea, eta honako agiri hauek erantsi beharko dituzte:

- a) Eskatzailearen IFK edo NANaren kopia.
- b) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan aurreikusitako debekuren baten eraginpean ez daudela adierazteko ardurapeko aitortpena. I. eranskina.
- c) Udalari borondatez eman beharreko baimena, zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren betearazpenari buruzko datuak arakatzeko. I. eranskina.
- d) Zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren betearazpenean egunean daudela egiaztatzeko asmoz zerga-arloko administrazio eskudunak eta GSDNk indarreko urtean egindako ziurtagiriak, hurrenez hurren, betiere, aurreko idatz-zatian aurreikusitako baimena aurkezten ez bada edo udalak ziurtagiriak lortu ezin baditu.
- e) Obren azken likidazioa, administrazio honi lehenago aurkeztu zaionean izan ezik eta obren zein ordainsari teknikoen faktura originalak. Agiriok prozedura amaitu eta gero itzuliko zaizkie interesdunei. Agiri horiek kontzeptuen arabera bananduta egongo direnez, berariaz egiaztatuta geratuko da diru-laguntzaren helburu den aurrekontua.
- f) Behar bezala betetako "hartzekodunen fitxa" eta bankuko kontuaren titularitatearen egiaztatzea. II. eranskina.

2.- Eskabideak Bilboko Udaleko Erregistroan aurkeztu edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein sistemaren bidez bidali ahal izango dira.

3.- Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean aurkeztu osteko hurrengo egunean hasi eta 2017ko azaroaren 15ean amaituko da. Informazioa udalaren webgunean ere egongo da ikusgai ([www.bilbao.eus/Area de Planificación Urbana](http://www.bilbao.eus/Area_de_Planificación_Urbana)).

## **10. ARTIKULUA. IZAPIDEAK**

1.- Deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak lortzeko, egiturazko elementuak konpontzeko obrek kasuan kasuko udal-arloko lizentzia edo baimena eduki beharko dute, edo udalak zuzenean betarazi behar izan du obra ordezkarritasunez.

2.- Era berean, eskabidea berriro egin gabe, lehenago aurkeztutako eskabideak deialdi honetan bertan kontuan hartuko dira, betiere, esleipena ebatzi gabe badago.

3.- Laguntza hauetan, ez dira jarduketak kontuan hartuko, fakturak edo, ordainketak partzialak izanez gero, azken likidazioak 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagoak badira, aurreko atalean jasotakoak izan ezik.

## **11. ARTIKULUA. ESLEITZEKO ETA EBAZTEKO PROZEDURA**

1.- Dirulaguntzen deialdi honetarako aurrekontu-kreditua 7. artikuluan zehaztutako laguntzen zenbatekoan banatuko da deialdi honetako eskakizunak bete egiten dituztela egiaztatzen duten pertsonen edo erakundeen alde. Aukera hori, gainera, aurrekontu-zuzkidura agortu arte egongo da zabalik.

Laguntzen esleipenari buruz ebazteko orduan kontuan hartuko den lehentasunezko hurrenkera eskabidea forman aurkezten deneko datakoa izango da.

2.- Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Hiri Plangintzarako Saileko Aurrekontu, Kontratazio eta Informatizazio Sekzioa izango da.

Organo izapidegile horrek ebazpen-proposamena egingo du honako hauxe egiaztatu ondoren:

- Udal-ikuskaritzak behar besteko txostena egin du, egiturazko elementuak konpontzeko obrak amaituta daudela eta behar bezala betearazi direla adierazteko.

- Onuradunak Eraikina Ebaluatze Txostena edo EATko Txostena (Eraikinen Azterketa Teknikoa) aurkeztu du.

- Onuraduna zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren betearazpenean dago egunean, eta udal honekin ez dauka zerga-arloko inolako zorrik edo zehapenik epe exekutiboan, betiere, geroratuta, zatikatuta edo etendako betearazpenpean ez badaude.

3.- Gobernu Batzordeak edo berak eskuordetutakoak ebatziko du prozedura.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehienezko epea lau hilekoa izango da, deialdiaren laburpena argitaratuta, eskaria aurkezten denetik hasita.

Ebazteko eta ebazpenaren berri emateko gehienezko epea igarotakoan, eskabidea isiltasun administratiboagatik ezesten dela ulertu ahal izango da.

Eskatutako diru-laguntzaren esleipena erabaki edo ukatzen duen ebazpenak bide administratiboari emango dio amaiera.

Dena dela, ebazpen horren aurkako aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoan bertan, eta horretarako epea hilabetekoa izango da, jakinarazpena egiten denetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da kasuan kasuko Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da jakinarazpena egiten denetik hasita.

4.- Prozedura izapidetzeko eta ebazteko egintzak banakako jakinarazpenaren bidez jakinaraziko dira.

## **12. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN ORDAINKETA**

Hiri Plangintzarako Saileko Ordezkaritzak esleitutako diru-laguntza ordaintzeko ebazpena emango du, onuradunari ebazpen horren berri emango zaio eta Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan haren izenean dagoen bankuko kontuan egindako diru-sarreraren bidez ordainduko da.

## **13. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA**

Diruz lagundu daitekeen jarduketaren garapenaren justifikazioa diru-laguntza eman baino lehen aurkeztuko da justifikazio-kontu moduan.

Diruz lagundutako ezaugarrien eta onuradunen arabera, honako osagai hauek izango ditu:

- Obren azken likidazioa.
- Obren eta ordainsari teknikoen faktura originalak.

## **14. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA**

Emandako diru-laguntza guztiak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta udalaren web orrian argitaratuko dira.

Bilbon, 2017ko otsailaren 22an.  
Hiri Plangintzarako Saila.

## I. ERANSKINA / ANEXO I

### ARDURAPEKO AITORPENA

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_, jaunak/andreak  
(NAN: \_\_\_\_\_),  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_ko jabeen elkartearen izenean\* (IFK:  
\_\_\_\_\_) ardurapeko  
aitorpen hau egiten du: diru-laguntza  
jasoko duen pertsona fisikoa edo juridikoa  
ez dagoela sartuta Diru-laguntzei  
buruzko Legearen 13. artikuluan  
adierazitako debekuetako batean ere..

Bilbon, \_\_\_\_\_

Sin.:

### DECLARACIÓN RESPONSABLE

D./D<sup>a</sup> \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_, con  
D.N.I. \_\_\_\_\_  
que actúa en representación de la  
Comunidad \_\_\_\_\_ Propietaria\*  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_, con C.I.F.  
\_\_\_\_\_, declara  
responsablemente que la persona física  
o jurídica destinataria de la ayuda no  
está incurso en ninguna de las  
prohibiciones previstas en el artículo 13  
de la Ley General de Subvenciones.

Bilbao, \_\_\_\_\_

Fdo.:

### BORONDATEZKO BAIMENA DATUAK EGIAZTATZEKO

Eskabidea egin duen pertsonak edo jabeen elkarteak baimena ematen dio berariaz Udalari betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela egiaztatzekeo (baimenik ematen ez bada edota datu horiek lortzea ezinezkoa izan bada, diru-laguntza emateko Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiko egiaztagirak aurkeztu behar dira).

Bilbon, \_\_\_\_\_

Sin.:

### AUTORIZACIÓN VOLUNTARIA PARA COMPROBACIÓN DE DATOS

La persona o comunidad solicitante autoriza expresamente al Ayuntamiento de Bilbao para comprobar que está al corriente en el pago de sus obligaciones fiscales y de la Seguridad Social (en caso contrario o en el supuesto de resultar imposible la obtención de dichos datos, para conceder la ayuda deberá aportar los certificados de Hacienda Foral y de la Tesorería General de la Seguridad Social).

Bilbao, \_\_\_\_\_

Fdo.:

\* Jabeen elkartearen izenean jardunez gero betetzeko; hala ez bada, utzi bete barik.

\* Complimentar únicamente en el caso de actuar en representación de una Comunidad Propietaria, en caso contrario, dejar en blanco.

## II. ERANSKINA / ANEXO II

### HARTZEKODUNEN FITXA / FICHA ACREEDORAS/ES

Kontuhartzailletza Nagusiaren Zerbitzua / Servicio de Intervención General

IFZ- IFK-Pasaportea/NIF-CIF-Pasaporte	Izen-abizenak-Izen soziala/Nombre y Apellidos – Denominación Social		
Lokalizazio-datuak (herrialdea-egoki bada-, probintzia, udalerrria, kalea, blokea, ataria, solairua eta aldea) Datos Localización (País – en su caso-, provincia, municipio, calle, bloque, portal, piso y mano)			
Posta-kodea /Código Postal	1. telefonoa /Teléfono 1	2. telefonoa /Teléfono 2	Helbide elektronikoa/E-mail
EJZko epigrafea / Epígrafe I.A.E.	Profesionalak-Artistak: Jarduera hasi den eguna / Profesionales – Artistas: Fecha inicio actividad		
Bankuko datuak / Datos Bancarios IBAN	SWIFT (BIC)		

DATA / FECHA:

SINADURA / FIRMA:

(Izena eta abizen bi)/  
(Nombre y dos apellidos)  
Kargua / Cargo:

Fitxa hau **pertsona baimendu** batek bete eta sinatu behar du eta **agiri hauek** aurkeztu behar ditu:

- **IFZ/IFK/Pasaportearen** kopia.
- **Jarduera Ekonomikoen Zergaren** kopia (faktura Udalari egingo bazaio).
- **Bankuko kontuaren titulartasunaren ziurtagiria**, edo, halakorik ezean, titulartasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri.

Fitxa eta eskatutako agiriak izango dira oinarria hartzekodun horri HARTZEKODUNEN UDAL ERREGISTROAN alta emateko, eta posta elektronikoz edo posta arruntaren bidez bidal daitezke helbide hauetara:

BILBOKO UDALA  
KONTUHARTZAILLETZA  
Venezuela plaza 2, 2. solairua  
48001 BILBO  
Tel.: 94 420 46 89

Helbide elektronikoa: [contabilidad@ayto.bilbao.eus](mailto:contabilidad@ayto.bilbao.eus)  
Bide horiek erabil daitezke erregistroan jasotako datuok ikusteko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideaz baliatzeko.

Esta ficha debe ser cumplimentada y firmada por **persona autorizada** y debe acompañarse de la siguiente **documentación**:

- Copia de **CIF/NIF/Pasaporte**
- Copia del **Alta en el Impuesto de Actividades Económicas** (si se va a emitir factura al Ayuntamiento)
- **Certificado de la titularidad de la cuenta bancaria** o, en su defecto, cualquier otro documento que acredite la titularidad de la misma

La ficha, junto con la documentación requerida, constituirá el soporte documental en base al cual se dará de alta al acreedor/a en el REGISTRO MUNICIPAL DE ACREEDORES y puede entregarse o enviarse por correo electrónico u ordinario en la siguiente dirección:

AYUNTAMIENTO DE BILBAO  
CONTABILIDAD  
Plaza Venezuela, 2- 2ª planta  
48001 BILBAO  
Tfno: 94 420 46 89

Email: [contabilidad@ayto.bilbao.eus](mailto:contabilidad@ayto.bilbao.eus)

Por los mismos medios puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición sobre los datos personales incluidos en el citado registro.

